

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5523

AGINDUA, 2018ko urriaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2018ko diru-laguntzen deialdia egiten duena.

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du.

Halaber, arau hauek daude indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan, laguntzei eta diru-laguntzei dagokienez: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua - EONALTB- (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Araudia onartu duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Aipaturiko 119/2015 Dekretuaren 15. artikuluan adierazten denez, kultura arloko eskuduntza duen saileko titularrak, aurrekontuak ahalbidetzen badu, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteek deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko deialdia egingo die. Deialdi horretan, eduki hauek zehaztu beharko dira:

- Dekretu honen erreferentzia, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko zein zenbakitan argitaratu den adieraziz, baita zein arau osagarri edo gehigarri aplika dakioken ere.
- Diru-laguntzak finantzatzeko aurrekontu-hornidura osoa.
- Eskaerak aurkezteko tokia, epea eta modua, baita fundazio eta elkarte eskatzaileek zein dokumentazio aurkeztu behar duten ere.
- Deialdia ebazteko epea -deialdia indarrean sartzen den egunetik hasita gehienez ere sei hilabetekoa izango da- eta fundazio eta elkarte eskatzaileei jakinarazpena egiteko modua.
- Emandako laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- Balorazio Batzordeko kideen izendapena.
- Deialdiaren beraren kontra zer errekurtso jar daitezkeen, zer epetan eta zer organori aurkeztu behar zaizkion.

Aipatutako dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, Agindu honen bidez gorago aipatutako eduki horiek zehaztu dira, arau horretan xedatutako diru-laguntza deialdia 2018ko ekitaldian aplikatzeko.

Kudeatzeko irizpide gisa, laguntzen hartzaile diren fundazio eta elkarteek baliabide elektronikoen baliatuta egingo dituzte egin beharreko eskaera, galde eta izapideak. Beraz, haiei egin beharreko komunikazio eta jakinarazpenak, bai eta eskaeraren ondorengo gainerako izapideak ere, bide horretan egingo zaizkie.

Deialdi hau Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2018ko urtarrilaren 31n onartu duen eta sailaren beraren webgunean (<http://www.euskadi.eus/plan-departamental/plan-estrategico-de-subvenciones-del-departamento-2018-2020/web01-s2hhk/eu/> helbidean) argitaratua den Kultura

eta Hizkuntza Politikako sailaren 20118-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusia da.

Bada nahiko aurrekontu-kreditua deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzetarako abenduaren 22ko 5/2017 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, dioenez.

Horri jarraikiz, honako hau,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2018ko diru-laguntzetara biltzeko dei egitea. Diru-laguntza horiek emateko modua 2015eko ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 9ko EHAA, 128. zk.) eta honen hutsen zuzenketak (2015eko irailaren 8ko EHAA, 170. Zk.) arautzen dute.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

2018ko ekitaldian, Agindu honen bidez deitutako diru-laguntzak finantzatzeko guztizko aurrekontu-zuzkidura berrehun eta laurogeita bi mila eta bostehun eurokoa da (282.500).

3. artikulua.– Programak gauzatzeko epea.

Agindu honen babesean diru-laguntza jasotzeko aurkeztu diren programak 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira nahitaez.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honen babesean ematen diren laguntzen eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAA-n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

2.– Eskabideak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, helbide honetara sartuta: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2018/alderdi_politikoak/y22_izapide/eu/

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak betetzeari buruzko azalpen guztiak aurreko puntuan esandako euskadi.net domeinuko egoitza elektronikoa daude eskura.

4.– Eskaeraren ondorengo izapideak elektronikoki egingo dira, ondorengo atal honetan <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako dokumentazioarekin batera. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabili ahal izango da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duen moduan.

6.– Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

1) Eskaera sinatu duen pertsona fisiko edo juridikoak eskaeraren titularra legez ordezkatzeko ahala duela egiaztatzea.

II) Eskaeraren titularrak Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dagoen alderdi politikoren batekin lotura duela eta hark diru-laguntza bere izenean jasotzeko izendatu izana egiaztatzea.

III) Eskaeraren titularrak, zuzenbidean ontzat ematen den edozein frogabidez, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dagoen formazio politikoa osatzen duen eta eskatzailearekin lotura duen alderdi politikoak Legebiltzarrean dituen eserlekuak edo beraiek ezagutzeko era, egiaztatu beharko ditu. (hau, soilik, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden formazio politikoak osatzen dituzten alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteek egiaztatu beharko dute).

b) Aurkeztutako programari buruzko dokumentazioa:

I) 2018ko ekitaldian gauzatu beharreko programari buruzko laburpena, proposatutako ereduari jarraituz.

II) 2018ko ekitaldian gauzatu beharreko programari buruzko memoria.

III) 2018ko ekitaldian gauzatu beharreko programaren aurrekontua, proposatutako ereduari jarraituz.

c) 2018ko ekitaldian gauzatu beharreko programaren gauzatze-egutegia.

d) Ordainketak egiteko, diru-laguntza eskatzen duen erakundea erregistratu gabe badago Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bere bankuko datuak aldatu nahi baditu, Euskadi.net atarian eskuragarri duen Eusko Jaurlaritzako hirugarrenaren altari buruzko orria aurkeztu beharko du.

e) Nahi izanez gero, aurkeztutako programa hobeto ebaluatzeko eskatzaileak egoki irizten dien bestelako dokumentuak gehitu ahal izango dira.

7.– Aurkezten diren dokumentu elektronikoek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Deskargatzeko ereduak erabiliko dira holakoak daudenean, eta ahal bada ereduaren formatuan aurkeztuko dira.

b) Bestelako dokumentazioa aurkeztuko da ahal bada PDF formatuan.

c) Bideoak web helbide baten bidez aurkeztu ahal izango dira.

8.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

5. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak orokor hauek:

1.– Erakundeak ez du jaso diru-laguntza eta laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik, ez zigor-arlokorik, ez administrazio-bidekorik, eta ez dauka legez debekatuta halakorik eskuratzea (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak ere kontuan hartuta).

2.– Erakundeek egunean dauzka indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean beteak dituztela automatikoki egiaztatuko ditu deialdi honen organo kudeatzaileak, behar beste aldiz, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz.

3.– Erakundeak aurkezturiko gastu-aurrekontuan, hurrengo gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Higiezineta obren gastua.
- Ekipamendu-gastuak, fundazio edo elkarte onuradunaren ondarea handitzea eragingo duten gastuak direla ulertuta, adibidez: makinak, altzariak, informatikako ekipoa eta garraiorako elementuak eskuratzea.
- Amortizazio-gastuak.
- Zerga-gastuak.
- Irakasle, hizlari eta aurkezleen ordainsariak, jasotzailea diru-laguntzaren onuraduna den fundazioko edo elkarteko zuzendaritza-organoetako kidea bada.

4.– Batetik, erakundearen izenean aurkeztutako eskaerako datuak eta han erantsitako agiri-rietakoak egiazkoak dira; bestetik, erakunde eskatzaileak indarrean den araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzka hori frogatzen duten agiriak. Azkenik, betekizun horiek diru-laguntzaren iraunaldi osoan betetzeko konpromisoa onartzen du.

6. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak, aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea dela edo akatsak dituela ikusten badu, horren berri emango dio eskabidea egin duenari eta hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, dokumentazioa osatu edo akatsak zuzen ditzan. Gainera, jakinaraziko dio hori egin ezean bere eskaera baztertua izango dela ebazpen baten bidez.

Aurkeztutako dokumentazioa osatzeko edo dituen akatsak zuzentzeko, bide elektronikoa erabili beharko dira nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, helbide honetara sartuta: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

39/2015 Legearen 68.4 artikulua adierazten duenez, interesdunen batek, aipaturiko dokumentazio osagarria edo akatsen zuzenketa aurrez aurre aurkezten badu, Kultura eta Hizkuntza Politika sailetik aurkezpen elektronikoaren bitartez zuzen dezala eskatuko diote. Ondorio horietarako, azken zuzenketa hau egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

7. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkar-teenetzako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak, bere 7. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Balorazio Batzordea osatuko duten kideak ondorengo hauek izango dira:

a) Arturo Garcia Fiel, kultura sustatu, bultzatu eta hedatzeko eskuduntza duen zuzendaritzako teknikaria izango da, eta Balorazio Batzordeko presidentea izango da.

2018ko azaroaren 9a, ostirala

b) Itziar Lizeaga Romero, Fundazioen eta Elkarteen Erregistroaren arloko eskumena duen zuzendaritzako teknikaria izango da, eta Balorazio Batzordeko presidenteordea izango da; honek huts egingo balu, Silvia Martínez de Ubago Bermejo arituko da bere ordez.

c) Verónica Del Blanco Ruiz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (HAEE) teknikaria izango da, eta Balorazio Batzordeko idazkaria (bai hitz egiteko eta baita bozkatzeko eskubideak izango ditu) izango da; honek huts egingo balu, Anartz Izagirre Arretxe arituko da bere ordez.

d) Ane Crespo Calvo, hizkuntza-politikaren arloan diharduen teknikaria izango da; honek huts egingo balu, Elene Etxezarreta Etxeberria arituko da bere ordez.

8. artikulua.– Ebazpena.

Fundazio eta elkarte interesdunei deialdi honetako diru-laguntzen banaketa Ebazpenaren berri emango zaie baliabide elektronikoez baliatuta, Agindu hau indarrean hasten den egunaren biharamunetik hasi eta 6 hilabeteko epean gehienez ere.

9. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Diru-laguntza honen onuradunek, diruz lagundutako programako jarduerak bukatzen diren egunetik hasi eta bi hilabeteko epean gehienez ere, eta nahitaez 2018ko abenduaren 31 baino lehen, programei buruzko ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, diru-laguntza justifikatzeko:

a) Diruz lagundutako programari buruzko justifikazio laburpena, proposatutako ereduari jarraituz.

b) Diruz lagundutako programaren memoria.

c) Diru-laguntza jaso duen programaren egikaritzapenaren behin betiko aurrekontua (gastuak eta sarrerak); kopuruak ahalik eta xehatuen eman behar dira.

d) Diru-laguntza jaso duen programa egikaritzeko egindako gastu guztien zerrenda, proposatutako ereduari jarraituz.

e) Diruz lagundutako programa egitearen ondorioz sorturiko gastuen frogagiriak, kasu bakoitzeko hirugarren interesdunaren aldeko ordainketaren librantza egin izana egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

f) Diruz lagundutako programan edo jardueran oinarrituta sorturiko material bakoitzaren hizkuntza-bertsioen aleak.

2.– Justifikazioak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, «Nire karpeta» atalean (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>)

Justifikazioak tramitatzeari buruzko zehaztapen eta eredu guztiak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan daude eskura, ondorengo helbide honetan: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2018/alderdi_politikoak/y22_izapide/eu/

10. artikulua.– Jakinarazpenak egitea izapidetze telematikoan.

1.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren V. Izenburuan xedaturikoari jarraikiz, jakinarazpena egintzat joko da interesdunak edo, bestela, haren legezko ordezkariak edo hark baimendutako norbaitek jaso izana elektronikoki sinatzen duen unean. Kasuan kasuan ezarritako epea jakinarazpena jaso izana elektronikoki sinatu den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen.

2018ko azaroaren 9a, ostirala

2.– Jakinarazpena Dekretuak aipatzen duen helbide elektronikoan interesdunaren (edo haren legezko ordezkariaren nahiz hark baimendutako pertsonen) eskura utzi eta hamar egun naturalako epean ez bada haren edukia atzitzen, jakinarazpenari uko egin zaiola ulertuko da. Halako kasuan izapidea egintzat joko da eta aurrera jarraituko du prozedurak, non eta ez den egiaztatzen, ofizioz zein interesdunek hala eskatuta, hura atzitzeko ezintasun tekniko edo materiala izen dela.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Interesdunek eskabideetan emandako datuak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira, hala ezarritako baitago Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan. Fitxategiak «Kultura sortzeko eta hedatzeko laguntzak eta diru-laguntzak» du izena, 2015eko abenduaren 2ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduan arautzen da delako fitxategi hori, alegia, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzekoan (hizkuntza-politikaren, kulturaren eta gizarte-hedabideen arloak), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko abenduaren 2ko Aginduaren bidez araututa dago eta haren xedea da laguntza-espeditenteak kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezko diren segurtasun-neurriak ditu; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudiarekin bat etorriz, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu ahalko da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurrean. Horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ere aztertu eta egiaztatu ahalko ditu emandako datuak, laguntzak zuzen esleitzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea agortu du; beraren aurka erakunde interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 30a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.